NARRADORA

(off, cantado)

Finge la Poesía que divertirá
a la excelsa concurrencia.
Manda traer una urna
que contiene diversas figuras.

Fragmento del guion para *Acromática*,
basado en el poema *Scacchia Ludus* [Juego del ajedrez]
de Marco Girolamo Vida (1513).

KONTALARIA

(off, kantatua)

Itxurak egiten ditu Poesiak,
goren graduko publikoa olgatuko duelakoan.
Agindu du, ekartzeko
barruan askotariko piezak dauzkan ontzia.

Acromática [Akromatikoa] gidoiaren zati bat,
Marco Girolamo Vidaren *Scacchia Ludus*
[Xake jokoa] poeman oinarritua (1513).

NARRATOR

(Voice over, singing)

Poetry pretends to entertain
the sublime audience.
She sends for an urn
containing various figures.

Excerpt from the script of *Acromática* [Achromatic],
based on the poem *Scacchia Ludus* [The Game of Chess]
by Marco Girolamo Vida (1513).

Mabi Revuelta

DANTZA PROFANOAK XAKE TAULA BATEAN

DIRDIRAK, DISTIRAK ETA DIRDAIAK MABI REVUELTAREN OBRAN

Luis Francisco Pérez

HASIERA GISA. EMAN DEZAGUN. «*DAMAREN GAMBIT*» HASTAPENA.

Ajedrez [Xakea] izenburua dauka Jorge Luis Borgesek joko honi (jokoa al da edo pentsamendu sortzaile eta intelektualenaren sorkuntza artistikoa?) eskaini zion poema miresgarri batek; dena den, Borgesen lan osoan agertzen da denbora-pasa sofistikatu honen konposizio dinamikekiko grina, bereziki saiakeretan eta kontakizunetan. Horixe gertatzen da, nire ustez, idazle argentinarraren liburu eder eta misteriotsuenetako bat den *El Hacedor* [Egilea] obran, non irakur baitezakegu hain bikaina eta poetikoa den «jokaldia». Izan ere, liburu horretan, eta guztiz gogoangarria den beste poema batean –*El reloj de arena* [Harea-erlojua izenekoan]–, oso sotila den beste erreferentzia bat aurkituko dugu: «antikuario grisek "*kiderik gabeko alfilaren*" mundu hauskara batera baztertuko dute pieza». Egilea liburua 1960an argitaratu zen, eta ordurako bi urte inguru ziren beste xake zale porrokatu batek, Marcel Duchampek, Cadaqués herrira itzultzea erabaki zuela (han egon baitzen 1930eko hamarkadan lehen aldiz), bere lana kudeatzen aritzeko, axolagabe, desgogara, eskarmentuz beteta egonik ezerekin harritzen ez denari dagokion eran; baina, funtsean, Kataluniara berriro joateko arrazoi nagusia zen xakean jokatzen igarotzea «bere azken aldia» (1968an hilko zen), egun atseginak itsasertzean emanez. Orduan, pentsa dezakegu Borgesek Buenos Airesko ilunabar batean idatzi zuela *Ajedrez*, Duchampek Cadaqués herriko Melitón tabernako mahai batean lasai eserita «fitxa mugitu» zuen egun berean. Are gehiago: oso urrun eramango ote genuke gure fantasia espekulatibo errespetagarria, baldin eta ausartuko bagina esaten, 1960ko ilunabar hartan Duchampek nostalgiaz eta «lagunik gabeko alfilarekiko» tristeziaz gogoratuko zituela 1918 eta 1919 bitartean Buenos Airesen bizi izan zituen ia bi urteak, hain zuzen ere Borges, familiarekin batera Europan egindako bidaian, Espainian zegoen garai berean? Kontua da, nahita edo nahi gabe, Mabi Revueltaren erakusketa honetan aurkituko ditugun pertsonaia nagusietako batzuk «aurkeztu» ditugula, zoriz eta ausaz sortzen diren bide ustekabeko eta bitxi horietatik. Edo agian jardun behar genuke *Alizia ispiluan barrena* kontakizunaz (zeinarekin Borgesek harreman berezia izan zuen bizitza osoan), erakusketan pertsonaia hau eta egoera hori agertzen baitira arin eta zeharka, beste *dramatis personae* askorekin batera, «jokoz kanpo» iradokitzaile eta misteriotsuan. Horren kontu ematen digu Borgesek (oso metafisikoa den poema eder baten bertsoetan), ikusle gisa gure «ikuspuntua» aberasteko, dramaturgia adimentsu eta sentsual horretan parte hartzera gonbidatuak izan garen heinean:

> Bitxia da gero ametsak izatea, ispiluak izatea,
> eguneroko katalogo arrunt eta maiztuan
> dirdirek asmatzen duten mundu
> sakon ametsezkoa izatea[1].

*

Mabi Revuelta artista bilbotarrak egindako azken lanei buruzko erakusketa honen izenburuarekin hasiko gara: *Acromática. Una partida inmortal* [Akromatikoa. Partida hilezkorra]. Ez da nire asmoa, noski, errotulua osatzen duten bi parte edo atalei buruzko azterketa deskribatzailea, azalpenezkoa edo «inpresionista» egiten hastea, hori ezin argiago geratzen baita erakusketak eskatzen duen eszenaratzearen dinamiketan –azken batean, arte adierazle onen da: adimen sortzailearen «errepresentazioa»–; baina nabarmendu nahi ditut bi gai garrantzitsu, artistak eta komisarioak proposatzen diguten zeharbidea nolabait «markatzen» dutenak. Gai horiek izango lirateke erakutsitakoaren ezaugarri formala, edo sortutakoaren intentsitate estetikoa, «ohiko koloreez tindatzen ez den» hori, (Errege Akademiaren Hiztegian akromatiko hitzaren lehen adiera), baina bestalde balio digu optikako adierak ere: «argi zuria transmiti dezakeena, haren kolore eratzaileetan deskonposatu gabe». Eta bestalde, «partida hilezkorra», 1851n Londresen izandako xake partida bati dagokio, kirol intelektual hori praktikatzen eta sutsuki atsegin

1 Jorge Luis Borgesen *El Hacedor* [Egilea] liburuko beste poema bat: *Los espejos* [Ispiluak].

NARRADORA
(off, cantado)

«Y al final no somos más que una movible fila de fantásticas formas
que vienen y que van en torno a esta Linterna del Sol,
que alumbra, oscila, y la Maestra abre y cierra cual mágica pupila.

Nosotras piezas mudas del juego que el Destino despliega sobre el tablero
abierto de noches y días. Aquí y allá nos mueve, nos une, nos despega,
y una a una en la caja de la Nada, al final, nos relega».

Fragmento del guion para *Acromática*, basado en la composición *Ajedrez* del poeta y astrónomo persa Omar Khayyam (1048-1131) a la que llegué desde el poema homónimo de Jorge Luis Borges.

KONTALARIA
(off, kantatua)

«Eta, azkenean, Eguzki Linternaren inguruan badatozen eta badoazen forma
fantastikoen ilara mugikor bat baino ez gara gu, eta Linterna horrexek argitzen du,
zabu egiten du, eta begi magiko baten antzera zabaltzen eta ixten du Maistrak.

Gau eta egun taula irekiaren gainean Patuak hedatzen duen joko honetako
pieza mutuak gara gu. Han eta hemen mugitu, elkartu, bereizi eta, azkenean,
zokoratu egiten gaitu banan-banan Ezerezaren kaxa barruan».

Acrómatica [Akromatikoa] gidoiaren zati bat, Omar Khayyam (1048-1131) poeta eta astronomo persiarraren Xakea konposizioan oinarritua, zeinera iritsi bainintzen Jorge Luis Borgesen izen bereko poemaren bidez.

NARRATOR
(Voice over, singing)

“We are no other than a moving row of Magic Shadow-shapes that come and go
round with the Sun-illumined Lantern held in Midnight by the Master of the Show.

But helpless Pieces of the Game He plays Upon this Chequer-board of Nights and Days.
Hither and thither moves, and checks, and slays, and one by one back in the Closet lays”.

Excerpt from the script of *Acromática* [Achromatic], based on the composition Chess by Persian poet and astronomer Omar Khayyam (1048-1131) I came across it through the poem *Ajedrez* [The Game of Chess] by Jorge Luis Borges.

Mabi Revuelta